

Joxean Azkue gogoan

Herriko arkitekto
zenaren omenezko
plaka jarri dute
frontoi inguruan ▶ 3



Harpidedunei banatua ▶ Asteartea ▶ 2006-06-27 ▶ IV. urtea ▶ 922. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

Gabirondok irabazi du Gipuzkoako Sega Txapelketa

TOLOSALDEA ▶ Gazteluarraren atzetik sailkatu dira Aranalde gazteluarra, Zuriarrain amasarra eta Alkorta asteasuarra; «indarrak neurtzea eta lan txukunena egitea izan dira gakoak», Gabirondoren esanetan ▶ 6



Joxe Gabirondo, saria jasotzen; atzean, ezker-eskuin: Mikel Aranalde, Andoni Zuriarrain eta Mikel Alkorta. A. ETXANIZ



Batel estropaden finalekin eta Koadrila Egunarekin, aurtengo sanjoanei agur

TOLOSA ▶ Herenegun bukatu ziren aurtengo sanjoanak. Jende gehien erakarri zuten ekitaldiak batel estropadak eta Koadrila Eguna izan ziren. Gaztelu-Ibarrako mutilek eta Ibarrako neskek irabazi dituzte aurtengo estropadak, maila bikaina eskainiz. Koadrila Eguneako bazkarian ia 700 lagun elkartu zen. M. SOROA ▶ 4-5

LEITZA ▶

Azpiroz eta Saralegi aski utzi ditu Grande Marlaskak, baina inputazioari eutsi dio ▶ 7



UDAKO ORDUTEGI BERRIA!

Diseinua & Serigrafia
Plaza zaharra 10
Tolosa
Taiterra
943 67 49 90

ASTEAZKENA } 9:30 - 13:00
OSTEGUNA } 17:00 - 20:00
OSTIRALA }
LARUNBATA } 9:30 - 13:30

GUTUN@K ▶

Ezin dugu onartu
fabriken itxierarik
eta langileen
kaleratzerik

Paperalia eta Araxes paper-fabrikak itxi dituzte, orotara 180 langile inguru kaleratuak izan direlarik. Legorretan dagoen Paperalia enpresak 151 langile ditu eta Etkezaretza (Legorreta) eta Salvadora (Villabona) enpresen fusiotik sortutakoa da. Aurrera egiteko fusioa beharrezkoa zela azaldu zuten lehen eta 25 langile kaleratu zituzten orduan. Andoainen dagoen Galgo Paper enpresa ere arriskuan dago. 81 langile daude egun eta Leizaran (Andoain) eta Tolosana (Tolosa) paper fabriken fusiotik sortutakoa da, 50 langileren kaleratzearekin. Orain 23 langile kaleratu nahi dituzte eta gainerakoentzat ez dago proiektu garbirik. Paper-fabriketako langileez gain, enpresa horiek lana ematen dieten beste enpresek ere eraginak izango dituzte. Kaldereri txikiak eta papera manipulatzen duten enpresak oso egoera zailean geldituko dira.

Sistema kapitalistaren funtzionamenduaren ondorio bat gehiago izan dira itxiera eta kaleratze hauek. Ezin dugu onartu inondik inora gure klaseko anai-arreben zapalketa. Paper-

gintzako langileak aspalditik aritu dira borrokan lan baldintza hobekien lortzeko helburuarekin, 2003an 12 greba egun egin zituzten, adibidez, hitzarmen duin baten alde.

Garbi dago sektore honek gure eskualdean duen garrantzia. 2004ko urtarrilaren 29an honako hau zetorren TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI: «Eskualdeko papergintzako enpresek protagonismo berezia dute *El papel* aldizkarian. Papergintzak garrantzi handia du oraindik Tolosan eta Tolosaldean. Papergintza da eskualdeko jarduera nagusia».

Kuriosak dira, berriz, 2004ko urriaren 12ko HITZAN Bernardo Goikoetxea Tolosaldea Garatzeneko gerenteak emandako azalpenak: «Gipuzkoan 15 paper fabrika daude, eta zortzi Tolosaldean. Hori dela eta, eskualdeko industria guztiaren sostengua papergintza da. Paper ekoizpenetik haratago, galdatze lanak, paper fabrikarako makina ekoizleak eta papera manipulatzeoko industria osoa bildu da. Dena dela, papergintza sektorearekin heldua da, eta teilturik ez jotzeko asmoz dibertsifikazioa landu nahi da. Enpresak ohartu dira aldaketen beharraz eta eskakizun zehatzak egin dizkigute. Industria lur gehiago, trebakuntza egokia, teknologia berri-tzaileak, enpresen arteko

harremanak bultzatzea eta dibertsifikazioa sustatzea, hain zuzen». Lekutan geratu dira Goikoetxearen hitzak. Non daude aldaketa horien onurak?

LAB sindikatuak esan zuten HITZAN 2005eko maiatzaren 1ean Tolosaldeak bizi duen egoera sozio-ekonomikoa kez-kagarria dela. Hausnarketa horretan datu hauek ematen zituen sindikatuak: 2003-2004-2005 urteetan itxitako enpresak: Epak (Ikaztegieta), Winkler (Anoeta), Becker (Alegia) Amco (Villabona), Basagoitia (Tolosa), Tolosako Georontologikoa. Datu hauek bakarrik izan daitezke.

Ekoizteko modu kapitalista krisie, fabrika itxiereri, langabeziari, prekarizateari... lotuta dago. Hori ulertzea da auzi nagusia. Multinazional eta bankuek sistema kapitalistak funtzionamendu logikoa eta ordenatua dituela sinestarazi nahi digute, baina hori ez da egia. Ekoizpen kapitalista ez dago plan ekonomiko batean oinarrituta, merkatuaren funtzionamendu anarkikoan baizik, eta honek gehiegizko ekoizpenaren krisiak sortzen ditu. Bitar-

tean, aberastasuna eta boterea gutxiengo baten eskuetan gero eta gehiago pilatzen doa. Baina hori bai, sufrimendu guztia beti langileen bizkarrera doa. Ezin gara kapitalismoaren «logikan» erori.

Kapitalaren jabe direnen arteko konpetentzia basatiak ere, noski, sistemaren funtzionamenduari eta langileen bizi baldintzei eragiten die kasu honetan bezala. Marxismoak krisi kapitalistaren zergatiak sistema beraren bihotzean kokatu ditu beti. Ekonomiaren kontrola esku gutxiaren menpe dago, eta honek horrela jarraitzen duen bitartean krisiak, fabrika itxierak, langabezia, prekarizatea... eguneroko ogi izango dira. Beharrezkoa da langile klasea ekonomiaren palanka garrantzitsuenen kontrolaz jabetzea, sistema kapitalistarekin puskatuz eta ekonomia planifikatua eraikiz. Sozialismoa ala basakeria, ez dago erdibiderik. Aurre egin behar diogu lantokien itxierari eta langileen kanporatzeari. Nagusiek galerak argudiatuz gero, ireki ditzatela kontuen liburuak langileek sortutako aberastasuna nora joan den ikusteko.

Krisian dauden enpresa eta sektoreentzat langileen kontrola!

MANU ODRIOLAZA ETA

IBON ARTOLA ▶ 'EUSKAL HERRIA SOZIALISTA' ALDIZKARIKO KIDEAK

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

ANOETA ▶

Ekintza planari
buruzko herri
batzarra, gaur

Agenda 21aren baitan diagnostikoa burutu dute. Orain, hurrengo urratsa, hortik ateratako ondorioak abiapuntutzat hartuta eta ezarritako helburuak kontuan hartutik, ekintza planaren zirriborroa aurkeztea da, eta Anoetarako ekintzen proposamenak landu eta eztabaidatuko dira. Horretarako herri batzarra antolatuta dute gaur, 19:30ean, udaletxean.

ANOETA ▶

Dantza eta pilota
eskolan izena
emateko aukera

Udal dantza eta pilota eskoletako matrikulazioa abian jarriko dute gaurtik aurrera eta uztaillaren 7a arte, udaletxean. Aurkeztu beharrek: kontu korrantea eta, izanez gero, gazte txartela eta familia ugariaren kartila.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
 - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernaldea. Medikua: 65 23 39
 - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
 - ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
 - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
 - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
 - ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
 - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
 - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
 - ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
 - ▶ Orendain. Medikua: 655595
 - ▶ Oresa. Medikua: 682228
 - ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrumendi egotza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

VILLABONA ▶ MENDIA

Abodi eta Ori igoko dituzte
Aizkardikoen ibilaldian

Otsagabiatik hasi eta Larrañera arteko mendi martxa antolatu dute iganderako

ERREDAKZIOA

Villabonako Aizkardi Mendi Elkartek beste ibilaldi bat antolatu du igande honetarako. Oraingo honetan Otsagabia-Abodi-Ori-Larrañe izango da burutuko duten martxa. Otsagabian (775 metro) izango da, beraz, hasiera. Handik Muskildako baselizara (1.010 metro) igoko dira eta iparraldera joko dute GR-11ko markak jarraituz.

tuz. Marka horiek Abodi igotzen hasten direnean utziko dituzte.

Koistaren ondotik igaroko dira, eta hortik Abodiko (1.533 metro) gainera iritsiko dira. Iratiko basoetatik egingo dute jaitsiera iparralderuntz Ori aurrera ikusten dutela Urixuri ibaia iritsi arte. Ibaia gurutzatu eta Ori mendira (2.017 metro) igoko dira. Hortik Larrañeko portura jaitsiko dira, ibilaldia amaituz.

Ibilbide motza ere izango da

Ibilbide guztia egin nahi ez dutenentzako, oraingoan ere beste aukera bat dute mendizaleek. Ori mendiaren igoera hasi baino lehen, Iratiko basotik



Aboditik igaroko dira mendizaleek ibilaldian. HITZA

atera bezain laster, zuzenean Larrañeko portura jo dezakete nahi dutenek.

Ibilbide guztiaren iraupena 7,5 ordukoa da. Izena emateko

943 69 44 58 telefonora dei daiteke edo bestela Aizkardi Mendi Elkartearen egoitzara joan. Izena emateko azken eguna etzi izango da.

Iruña jatetxean
udarako
neska bat behar da
asteleheneetik ostiralera.
943 11 98 28

BIDEGOIAN ▶ GIZARTEA



Plaka erakutsi aurretik herriko dantzariak dantza egin zuten. M. SOROA

Plaka jarri diote Azkueri

Ehun bat lagun bildu ziren frontoiko plazara, herriko arkitektoa zena gogoan

NEREA URBIZU

Igandean, bidegoiandarrek Joxean Azkue herriko arkitektoa zena gogoan izan zuten, modu berezi batean.

Bertaratu ziren 100 lagun inguruk Joxean Azkuek Bidegoianen egindako urbanizazioa ikusi ahal izan zuten. Gainera, bertan bere omenez jarritako plaka ere desestali zuten bere gurasoek.

Herriko sei dantzari gaztek plaka erakutsi aurretik dantza eskaini zuten, momentu horretarako proposa izan zen bat,

«delikatua, eta goxoa izan baitzen», Juan Ugarte alkatearen arabera.

Alkateak hitz batzuk esan zituen, Joxean Azkueren lana eta haren izaera gogoan izanik. Arkitektoa lanak egin zituen Bidegoianen, eta pilotalekuaren inguruko lurra urbanizatzeko proiektua egin zuen. Egun, frontoira joateko bidea txukun dago, eta bertan egoteko bankuak eta zoru egokia ipini dituzte, iturri batez gain.

Alkateak bertara joan zirenei eskerrak eman zizkien parte-hartzeagatik.

ABALTZISKETA ▶ JAIK

Aspaldian izan diren herriko jairik girotuenak

Jende asko ibili da, bai kontzertuetan, bai kirol probetan eta baita plazan ere



Zaldi Karrera Amezketako bidegurutzean hasi zen. MADDI SOROA

N. URBIZU

Aspaldiko urteetan gogoratzten dituzten jairik girotuenak eta baita jendetsuenak ere izan dela esan dute abaltzisketarrek. «Giro ia ezin hobea izan da herrian».

Musika aldetik talde ezagunak eraman zituzten herrira: Imuntzo eta Beloki, Kupela taldea eta Etxabe anaiak aritu ziren egun ezberdinetan: ostegunean, astean zeharreko eguna izanik ere jende dezentetik ibili zen herrian. Kupelarekin ere «giro ederra sortu zen, erantzun ona jaso zuten».

Larunbatean euria egin zuen, eta nabaritu egin zen, baina ez zuen jaia zapuztu: sargardo dastaketan jende askok hartu zuen parte: 12 sagardo desberdin izan ziren.

Bestalde, herriko eskolaren aldeko boletoretan zozketatutako txekorra 1.750 zenbakiari egotzi zaio: ez da oraindik boletore horren jabea agertu.

Zaldi Karrera

Zazpigarren Zaldi Karrera arrakastatsua izan zen: jende asko bildu zuen proba honek, «erantzuna oso ona izan zen jendearen aldetik», adierazi zuen antolatzaileetako batek. Eguraldiak, gainera, asko lagundu zuen. Denera, 16 zaldi lasterkari atera ziren Amezketatik gora.

Irabazlea Zizurkilgo Asier Mujika izan zen, eta bigarren Iratxe Urriolabeitiak egin zuen (Gernikakoa). Hirugarren Ormaiztegi Igor Baroja izan zen.

AMEZKETA ▶

Euskara Elkarteak bertso afaria antolatu du

Ostiralean Irazuk eta Peñagarikanok bertso saioa eskainiko dute frontoi zaharrean

N. URBIZU

Ostiralerako bertso afaria antolatu du Amezketako Euskara Elkarteak. Afaria 21:00etan izango da frontoi zaharrean, plazakoan, alegia.

Anjel Mari Peñagarikano eta Jexux Mari Irazu izango dira bertsoetan. Afarirako txartelak salgai daude herriko ohiko tabernetan, 15 euroren truke, eta gaur da erosteko azken eguna.

Bertso afaria baino lehen, ordea, 20:00etan, balio anitzeko gelan ere saio txoa egingo dute aipatutako bi bertsoari. Hau doan izango da. Beraz, modu batera edo bestera, bertsoez gozatzeko aukera izango da.

Elkarteak ereindakoa

Kantu afariarekin hasi zuten jarduna. *Bai eskolak euskalduntzeari!* kanpainarako sinadura-bilketa egin zuten ondoren. Eta euskal sehaska kantak ere zabaltzen ari dira.

Euskara Elkarteak sortu zenetik sei hilabete bete dira. Euskaltzaleen bilgune izatea zen elkartearen helburuetako bat, eta lortu dutelakoan daude. Ezin esan euskararen alde egiten ez dutenik.

IBARRA ▶

Kultur Etxeko eta liburutegiko udako ordutegiak

Uda gainean izanik, Ibarako Benito Izagirre kultur etxeak eta liburutegiak beste ordutegi bat izango dute: uztailearen 28a arte goizez bakarrik egongo dira irekita. Liburutegia 09:30etik 13:30era, eta Kultur Etxea, aldiz, 09:00etatik 14:00etara. Uztailearen 31tik irailaren 1era bitarte itxita egongo dira, eta, berriz ere, irailaren 4tik 8ra bitarte, uztailean aipatutako ordutegi bera izango da: hain zuzen ere, liburutegia eta Kultur Etxea goizez bakarrik egongo dira irekita.

AMEZKETA ▶

Musika Eskolako ikasleen emanaldia

Aurreko ostegunean Amezketako Musika Eskolako ikasle guztiek emanaldia eskaini zuten, kurtso bukaerako kontzertua, alegia. Hogeita bat ikasleek urtean zehar ikasitako kantaren bat jo zuten bertaratu ziren hainbat lagunarekin. Hamasei urte bete ditu jada musika eskola honek, eta, dagoeneko, herrian saxofoi-jole, pianista, trikitilari, pandero-jole eta gitarrista multzo polita badago. Osteguneko arratsalde musikatu ia gaur zuten, beraz, amezketarrek.



Gitarrajoleak *Lau teilatu* eta *Autumn leaves* kanta ezagunak eskaini zituzten. N. URBIZU

SAN JOANAK ▶

... datorren urtera arte

Koadrilen Egunarekin eman zitzaizen amaiera sanjoanei; batel estropadetan, Gaztelu-Ibarrako mutilek eta Ibarrako neskek irabazi zuten finala



Ibarrako neska izan ziren garaile, herenegun, Oria ibaian izandako batel estropadetan. MAIZO SOKA

N. LATABURU - E. ZEIZA

Uretan batelak eta arrastunak, neska zen mutilek oso maila ona erakutsiz aritu ziren igandean. Sorprea izan zen izan aurretiko igandeko sailkapen probako emaitzak ikusita, baina, hala ere, estu eta larri egon ziren gauzak amaierararte.

Mutiletan jubenbi mailakoak izan ziren onenak. Gaztelu-Ibarrara A batela, Aurten Oipuzoko-ko Txapelketan eta Oipuzoko-ko ligaxkan hirugarren geratu dira. Batela honako hauek osatu zuten dute: Jon Gogo (patroia), Eneko Martin eta Jon Ander Agirre. Asko ikusi dute joan deneko urtebetean, eta sekulako maila dute. Gaztelu-Ibarrara B eta

Txinparta gain-gainean izan zituzten, lehenekin txanda berdinean aritu ziren, eta Txinpartakok aurrekoan. Bi batel horiek ere maila bikaina eman zuten.

Nesketan, bigarren urte jarraian Ibarra izan zen txapel-dun, Irati Ozaeta (patroia), Irizar Sáezar, Amaia Doyague, Ohana Lopezegi eta Laida Etxebarriekin. Faborito berak izan, eta lana ondo bete zuten. Laier baterna batela izan zen gauzak estuen jarri arizkena. Biak txanda berean aritu ziren, eta tarte txikia izan zuten elkarren artean. Agimarratzeokoa da Ibarra batelak atzo lasarren denborarik onena egin zuela, denen lana kontuan hartuta, berezkoak dute maila handiaren erakusle.

SAILKAPENA ▶

MUTILAK		NESKAK	
Izena	Denbora	Izena	Denbora
1. Gaztelu-Ibarrara A	4:35:57	1. Ibarra	4:53:52
2. Gaztelu-Ibarrara B	4:39:56	2. Laier baterna	4:59:47
3. Txinparta	4:40:47	3. Aie txapelak 66 taberna	5:09:46
4. Aie txapelak Otebela tab.	4:55:72	4. Txarrio	5:25:22
5. Otxandor Reco Iris	4:55:73		
6. Etxebarri	5:02:02		

PROMOZIOA: MUTILAK		PROMOZIOA: NESKAK	
Izena	Denbora	Izena	Denbora
1. TXK Infantil A	2:25:13	1. TXK Infantil A	2:36:04
2. TXK Kudea	2:25:57	2. Guebarana	2:36:05
3. TXK Infantil B	2:39:12	3. Invidiade	2:37:15
		4. TXK Infantil B	2:39:12

Irabazteak txapelak eta urrezko dominak jaso zituzten Jokita Beldarratz Tolosako alkate Olatz Peon Tolosako alkateordearen eskutik, eta txango

Ibarrako alkate Chelo Romeo eta Gazteluko lurralde jauna-ren eskutik. Eta hirugarrenak brontzezko domina TAKeKo ordezkarien eskutik. Promozio mailako Ariane Bujandak eta Ander Garmentziak, berriz, Igarondo elkartearen sariak jaso zituzten.

Agustekoa da ere banderarik ez zela eman sari nagusi gisa. «Zan ere, estropada eremu lahegoan erabazten izan zen den bitartean, hau da, batek arrauean paretz pare eta norabide berberetan aritzeko aukera ez duten artean, ez da banderarik banatuko. Horretarako ezinbestekoa da presa berria erakitzu, beharrezko ur emaria segurtatuko bati lake nahiz den aldirio, berdin sanjoentzarako nahikoa erakitzeko en-trenatzeko (gaurten Itaztegi-egian eta Aduntan dibl dira bate-lak) eta lehiari aritzeko, nahiz denboraldiko beste probetara begira entrenatzeko», diote TAKeKoek. Hala ere, Udalerri- eta elkartearen arteko lankideta bide onen da helburu hori begira.

Promozio mailetan, azkenik, aurten federazioaren txapelketan (Oipuzoko-ko ligaxka eta Txapelketan) lehiari dibl dira batelak aritu ziren. TAKeKo eta Biralde ikastetxeko batelak ere Beasaino neska dira Goleirritarra ontzian ari direnak, denborra gutxiago sartu dituztenak eta gozmetik sanjoentzako Koadrilen Eguneko jai giroan murgildu ziren, herenegun, 11.00etan Bombeneko txarangaren musika entzungai izan zen herriko kaleetan, barrera, eta Plaza Zaharrean giro bikaina izan zen egun osoan.

Herri kirolak

Herri kirolen erakustaldia ere izan zen igandean. Trianguloan, Euskarri Tradizioak hainbat kirol ikusi ahal izan ziren bertan: besteak beste, aldora, harri-jasotea, ingude proba, lasto fardo igogera eta jaurtiketa.

Tolosan gutxiatikus dutez ke horriko kirol ekitaldiak, eta Koadrilen Eguna zela eta gazte gehienak kalean bazter-tuzan ere, jende ugari bildu zen Triangulora ikusizuzunaz goazteko. Hara inguratu zirenen arabera, igarri polita zegoen, eguraldiak ere nahiko lagundua baitzuen azkenean.

Gazte nahiz zahar aritu ziren lehiari igandeko erakustaldian; azkolaritaren, esterako, Olsagasti azkolarri baterano aritu zen Mugertze bi anal gazteren artean.



Ferialeku koadrilen kolore biziez bete zen, bazkarian. MAIZO SOKA



Herri kirolen erakustaldia, Trianguloan; argazkian, Ireta I.a. «11»

Koadrilen Egunarekin, agur

Horiak, laranjak, gorriak, berdeak... Tolosako koadrila ugari bere kolorekin kamisetan soinean jarri eta gozmetik sanjoentzako Koadrilen Eguneko jai giroan murgildu ziren, herenegun, 11.00etan Bombeneko txarangaren musika entzungai izan zen herriko kaleetan, barrera, eta Plaza Zaharrean giro bikaina izan zen egun osoan.

Durrik ez zen ageri egun gutxiatikus dutez, baina San Joan Eguneko euri jakak zirela eta Koadrila Eguneko bazkaria Ferialeku-erematek erabaki zuten koadrila antolatzaileek. Hala, gutxiatikus bertan bildu zi-

ren, bazkari lezea egiteko. Ia 700 lagun elkartu zen bertan. Musika alaitua, lagun arteko bazkaria giro ederrean garatu zen.

Ondoren, txarangarekin ka-lejiran Alde Zaharreko giroan sartu ziren bete-betean. Mutilak txapelak taldeak ere dantzan jarri zituzten tolosarrak. Pixkanaka arratsaldeak ere aurrera egin zuten eta Alurr-dantza taldeak tri zuzen nurg-tengo sanjoan. Honenbestez amaitu ziren herriko zaindaria-ren omenezko jaiak. Hiru egun-nez izan dute bertakoek nahiz kanpotarrek zer gozatu eta zer ospatu inauterietan tarteko, beste urte bezelax beren behariko diete tolosarrek jaiak.



Urkituzun eguraldi kaskarrari aurre egin zioten entzuleek. JONAN SALAS

Kontzertu magikoa

Et Incarnatus-ek kontzertu berezia eskaini zuen, iragan ostegunean, Urkituzun

N. LATABURU

Urkituzun paraje ederrean Et Incarnatus orkestrak «Kontzertu berezia» eskaini zuen pasatutako ostegunean. Gisa honetara udari ongietorria eman nahi izan zioten, naturan murgildurik. Zuzendarien urtearen aurtengoa eta ohitura bilakatu da dagoeneko. San Joan jaietan atarian, orkestra tolosarraren emandakia. Lehen urte-entzuten mendian egiten zuten, bai eta ikasleekin ere. Baina hiru urteko hona, Mendikuteran magaleko belaze eta pagadietx inguratutik dagoen Iroalako zuloa aukeratu dute eszenatokio.

Musikariak, Miguel Zeberio-eren gidaritzapean, pigoen inguratutik jelaian kokatu ziren, bertaratuek lasto artean

oseri ziren artean. Arratsaldea freskoa bazen ere, musika-entzuleek ezin zuten geroa. Gazteek zehin helduek gogotsu entzun zituzten Et Incarnatus-ekoen euskal eta Europako iparraldeko herrialdeen doroak. Ikus-entzuleen artean lehen aldiz isandakoak bai baina gehientsuenak espe-rientzia errepikatzen bertaratu ziren Urkituzun. Eta, orobat, jendea opozko-geratu zen bertan entzun ahal zenarekin.

«Musika egiten eta entzuten gozatzen dugunok egiten dugun ekitaldi pribatua da», azaldu zuen Miguel Zeberio. «Gara baten naturaren mende biziz zuzendatutako soluzioa oso une garrantzitsua zen, guretzat, al-diz, gizakiaren eta naturaren arteko sinbiosia da», gehitu zuen zuzendariak.

POLITIKA ▶

Biurrun, Jueces para la Democracia-ko hautagai

Epaike tolosarrak Agente Judizialaren Kontseilu Nagusiaren kide izatera hel daitezke

ERREDAKZIOA

Garbitze Biurrun Euskarri Autonomia Erakundeagatik Auzitegi Goreneko Epaimahai Sozial-eko epaile tolosarrak Jueces para la Democracia elkarteko hautagaia da, eta Agente Judizialaren Kontseilu Nagusiaren parte izatera hel daitezke. Orange Biurrun hamabi pertsonen osatutako hautaga-ien zerrendan sartu da, ar-dura hori hartzeko aukeratu diren gutxiakien batura. Ondoren, barne hautaketa egingo dute gutziaren artean, non behin berriz lau zuzendakidurten, beste lau, berriz, ordezkari moduan aukeratzeko dituzte.

Aukeraketa prozesua datorren hilean burutuko dute Jueces para la Democracia elkarteko 505 partaileek. Ondoren, Diputatuen Kongresutik igaro behar dute.

Beste hautagaiek

Gaitortzeko hautagaian ar-tuan, besteak beste, aur-tuzen dira Auzitegi Goren-eko hirugarren epaimaha-ko epaile Margarita Robles, Ga-litako Auzitegi Goren-eko Epaimahai Sozial-eko epaile Teresa Conde Pungido, Sevil-lako (Espainia) Auzitegi Pro-bintzial-eko lehenaldakari Mikel Carmona, Bartzelonako (Katalunia) Merkanit-eko epaile Jose Maria Sotjo, Pa-lentziako (Espainia) Auzitegi Pro-bintzial-eko lehenaldakari Carlos Alvarez eta Gironako (Katalunia) Auzitegi-eko epaile Carlos Cruz Moratones.

Farmadenda

- Dietak: jarralpen eta berme osorak (dieta errazak)
- Haurtentzako osagarriak
- Haur elikadura
- Dermokosmetika

Kurru suloak, 7 (Mendi-Erosari parkean) • 20400 Tolosa
Tel.: 943 57 96 28

Udan ere euskarari

Udan ere Bai Euskarari! Sartu www.baiEuskarari.org webgunean eta ikusi zeinuzko diren Bai Euskarari Zuzentzaia duten ostatu, hotel, jatetxe eta saltokiak, eta kontuan har itzazu!

Ez ahaztu, udan ere bai euskarari!

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA
2006 Harpidetza Kobraketan kanpainan

ILARAK, FAKTURAK, KOMISIOAK... AHAZTU!

HELBIDERATU ZURE KUOTA

EROSAGOEA eta 2 ZATITAN ORDAINTZEKO AUKERA

egunean 0,18 zentimoren truke buzoian

BELAUNTZA ▶ JAIK



Txikienak gustura, jolas eta jolas artean

I. Terradillos ▶ Herenegun eman zioten amaiera. Udalak antolaturiko egitarauaren baitan, San Joan jaietako Goizean hamaiketako hartu zuten herritarrek, eta arratsaldean, haurrentzako jolasak eta puzgarriak prestatu zituzten. Nahikoa jolas egin ondoren txokolatea ere hartu zuten txikienek. Toka, txinga eta bolo jokoen ostean, trikitilariak alaitu zuten festen azken eguna. M. SOROA

IBARRA ▶ KULTURA



Lurraren erradioa neurtzen

Erredakzioa ▶ Pasa den astean, udako solstizioa izanik, Uzturpe Ikastolako astronomia tailerrekoak lurraren erradioa neurtzen aritu ziren. Zientzia Museoan egin zuten, Tenerifeko (Espainia) beste talde batekin elkarlanean. Euren emaitza asko gerturatu zen benetako neurria. HITZA

SEGA ▶

Joxe Gabirondo gazteluarrak irabazi du Gipuzkoako Sega Txapelketa

Aranalde gazteluarra bigarren, Zuriarrain amasarra hirugarren eta Alkorta asteasuarra laugarren geratu ziren

IÑIGO TERRADILLOS

Joxe Gabirondo gazteluarrak irabazi zuen, herenegun, Oiarzungo Pikoketa zelaietan izan zen Gipuzkoako Sega Txapelketa. Bere atzetik geratu ziren bigarren postuan Mikel Aranalde gazteluarra, hirugarrean Andoni Zuriarrain amasarra eta laugarren Mikel Alkorta asteasuarra.

Gabirondok beste hiru finalistek baino hobeto ebaki zuen, eta hori erabakiorra izan zen; izan ere, beheragotik ebaki zuen belarra eta horrela batu ahal izan zituen ordubetean 3.384 kilo. Bigarren geratu zen Aranalde, berriz, lursail gehiago ebaki arren, 300 kilo gutxiago batu zituen; hau da, 3.090 kilo, eta gainera, 20 kiloko zigorra izan zuen. Zuriarrainek,

bestalde, 2.855,5 kiloko lana egin zuen eta Alkortak 2.800,5 kilo batu zituen. Giro ederra izan zen nagusi Oiarzungo Pikoketako zelaietan, eta 400 lagun inguru bildu ziren.

Lehenengo bi postuetan sailkatu ziren Gabirondo eta Aranalde berriro ariko dira nor baino nor bi aste barru Euskal Herriko Sega Txapelketan.



Joxe Gabirondo gazteluarraren taldea, garaipena ospatzen. A. ETXANIZ

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Andoain. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Sartzeko moduan. Berogailua. Kanpoaldera. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Andoain. Altua, igogailuarekin. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Erabat eraberritua. Trastelekua. Oso inguru onean. 44.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Tolosa. 47m2 erabilgarri dituen

apartamentua. Sartzeko prest. Igogailuarekin. 29.500.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ibarra. Aukera! Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela dituen etxebizitza ederra. Ezin hobea. 41.700.000 pezeta. Etxesagasti 943 69 68 56.

Tolosa. Erdialdean. 117 m2. Egongela, sukaldea, 3 logela, estudioa eta 2 bainugela. Garajea aukeran. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Igogailua. 46.500.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Eraberritua. 32.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. Eraikuntza berriko etxe ederra. Informa zaitez!

JOXE GABIRONDO ▶ GIPUZKOAKO SEGA TXAPELDUNA

«Indarrak neurtzea eta lan txukunena egitea izan dira gakoak»

Oiarzungun herenegun irabazi zuenarekin, 4 txapela ditu Joxe Gabirondo gazteluarrak Gipuzkoako Sega Txapelketan.

Zein izan zen igandean lehen egiteko gakoak?

Batetik, nire indarrak neurtzea; izan ere, hasiera partean hustu ordez, bukaerarako ere gorde nuen indarra, eta horregatik behetik gorantz egin nuen nire lanean. Ordubete luze egiten da, eta indarra neurtzea oso garrantzitsua da. Bestalde, lan

txukuna egitea, behe-behetik ebaki bainuen eta hori belarra batzeko orduan asko nabaritzen da.

Zure aurkariek zer moduzko lana egin zuten?

Lan txukuna. Eskarmentuari dagokionez, Aranalde zen faboritua, eta hasiera partean gogor hasi eta aurrea hartu bazuen ere, probak aurrera egin ahala behera egin zuen. **Gipuzkoako Sega Txapelketa eskuratu duzu. Orain Euskal**



I. TERRADILLOS

Herrikoaren bila joango zara. Kirola lasai egin, baina asko prestatu dut nire burua, eta espero nuen emaitza jaso du Gipuzkoakoan. Euskal Herrikoan ere nahiko nuke hala izatea, baina ahalik eta lan txukunena egiten behintzat saiatuko naiz.

LEITZA ▶ ATXILOKETAK

Azpiroz eta Saralegi aske utzi ditu Grande Marlaskak, baina inputazioari eutsi dio

Atzo utzi zuten Espainiako Auzitegi Nazionala bi enpresaburu leitzarrek, ordubeteko deklarazioa eginda; fiskalak ez zuen espexteratzerik eskatu

ERREDAKZIOA

Jose Jabier Azpiroz eta Juan Mari Saralegi leitzar enpresaburuak aske utzi zituen atzo arratsaldeko lehendabiziko orduetan Espainiako Auzitegi Nazionaleko Grande Marlaska epaileak. Haren aurrean ordubete inguruko agerraldia egin zuten, konfiantzazko abokatua bertan zela, ostiralaz geroztik inkomunikatuta zizuten bi lagunek, eta «inolako baldintzarik gabe behin-behingoaz aske» utzi zituen epaileak, «askatasuna murrizteko neurririk eskatu gabe hala egitea ez legezkoa» zela argudiatuta.

Atzo arratsaldean bertan

epaileak publiko egin zuen autoan agertzen denez, fiskalak ez zuen inolako eskaerarik egin; bi enpresariak, ordea, «inputatu» gisa jarraituko dute, «talde armatuarekin kolaborazioa» egozten baitie; ondorioz, hala eskatzen zaienean, epailearen aurrera agertzeko betebeharra ezarrita dute. Bi enpresariak 2001ean iraultza zerga delakoa eskatuz eskutitzak jaso izana onartu bazuten ere, ez zutela ordainketa-rik egin adierazi zuten epailearen aurrean, beti ere aitaturako autoak dionez.

Fiskalak —berari dagokio auzipetuen neurriak eskatzea—, ez zuen enpresarien

aurkako inolako neurririk eskatu eta, ondorioz, epaileak ezin izan zuen halakorik hartu eta ezarri, nahiz eta bere ustez, hala adierazi zuen autoan berean, frogatutaz jo «maila serioko probabilitatean» eskutitzak jaso ez ezik ordainketa ere egin, egin zutela, «beren borondatez eta Bake Proiektua deiturikoaren alde egiteko». Epailearen ustean, «54.000 euro bideratu zituzten Julen Madariagaren bidez» horretarako.

Epailearen nahiaren aurka

Fiskalak ez zuenez hala ikusi eta askatasun murrizketaren

bat eraginen zuketan inolako neurririk ez zuenez eskatu, enpresariak aske utzi zituen («ez legezkoa delako eskatu gabeko askatasunaren murrizpen neurririk ezartzea»). Halaxe zion atzo argitaratutako autoan epaileak.

Bi enpresariak 15:00ak aldera utzi zuten Auzitegi Nazionala, Euskal Herri alderako itzulerari ekiteko. Iturri desberdinek baieztatu zuten, handik ateratzerakoan ez zuten adierazpenik egin bertan bilduta zegoen prentsaren aurrean; beren konfiantzazko abokatuak esandakoaren ariora, «hiru egun hauen ondoren fisikoki eta psikikoki hautsita» zeuden.

Azpiroz eta Saralegi, aurreko ostiralean atxilotu zituzten «ETari iraultza zerga ordaindu izana» leporatuta, eta «erakunde armatuarekin kolaborazioa» egotzita, ustez, gaur zortzi, Frantziako eta Espainiako Poliziak egin zituen beste 12 euskal herritarren atxiloteten eta gerozko miaketaren ondoren atzemandako paperetan oinarrituta. Bi egun eman dituzte inkomunikatuta, Iruñeko Polizia Egotza Nagusiko kalabozotetan aurrena, eta Auzitegi Nazionalekoetan larunbatuz geroztik.

Inputatu gehiago

Berri honekin lotuta, atzo berean, Grande Marlaskak beste bi lagun deitu ditu deklaratzera gaurko; EAJko exekutibako kide Gorka Agirre eta alderdi horretako lehendakari ohi Xabier Arzalluz.

Bitartean, lehengo asteartean atxilotu eta oraindik Le Vert eta Grande Marlaska epaileen aurretik igarotzekoak dauden lau lagunengaineko erabakiak kolokan daude. Jakin denez, aste honetan zehar hartuko omen dituzte aipatutako bi epaile horiek.

KIROLAK ▶

Otaño eta Mujika bi ibartarrak 2. mailako aizkolarien finalean dira

Rekondo leitzarra zortzigarren gelditu zen kanporaketan eta ez zuen sailkatzerik lortu

ERREDAKZIOA

Unai Otaño eta Jexux Mari Mujika ibartarrak izanen dira Euskal Herriko 2. mailako Aizkolarien Txapelketako finala jokatzeko, uda bukaeran Iruñeko Huarten eginen den kirol jaialdian. Rekondo leitzarrek ez

zuen sailkatzerik lortu, zortzigarren gelditu zen eta.

Arbizun, 12 aizkolari ziren joanek 2. mailako aizkolarien finalerako 6 txartelen bila. Eta horietatik bi Ibarrara etorri ziren: Otaño eta Mujika aurreneko seietan sailkatu ziren eta. Aitatu behar da, merezimendu



Mujika eta Otaño, aizkolari festa batean elkarrekin. HITZA

osoz, gainera, Otaño izan zela nagusi proba horretan; izan ere, berea izan zen denborarik

onena, ia-ia bi minutuko aldearekin bigarren sailkatuari, Joxe Etxebeste eskarmentu

handiko aizkolaritari; 3 kanardikoak, 60 ontzakoa eta 72 ontzako (bi oinekoa) ebakitzen, 15 minutu eta 22 segundo behar izan zituen Otaño; Etxebeste, berriz, 17:08ko denbora egin zuen.

Bigarren honek eta gainerako lau sailkatuek segundo eskas batzuen barranean bukatu zituzten lanak: Aitor Senosiain (17:10), Juan Jose Lopez (17:24), Jose Anjel Zubiaga (17:26:16) eta seigarren Jexux Mari Mujika beste ibartarra (17:26:34) sartu ziren, azken bi hauek zentesimen tartean. Hurrengoak, 7. lekuan, Aranbarri gelditu zen eta Rekondo leitzarra zortzigarren, 17:49ko denbora eginda.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

hilberria ▶



Lurdes Portugal Ortega



*Bizitza, agian,
amaizten den gauza bat izango da,
baina maitasuna
inoiz amaizten ez den sentimena da.*



2006ko ekainaren 27an



AGENDA ▶

ANTZERKIA

Tolosa. *Asto bat hipodromoan.* Goringo taldearen haur ikuskizuna. 18:00etan, Amaroizko Auzo Etxean. VIII. Antzerki Astearen baitan.

DEIALDIAK

Amezketak. Bertso afaria antolatuta dute ostiralean Euskara Elkartekok. Gaur da izena emateko azken eguna, ohiko lekuetan.

Anoeta. Herri batzarra. 19:30ean, udaletxean.

Anoeta. Udal dantza eta pilota eskolako matrikula epea zabalduko dute gaur. 3 urtetik gorakoentzat dira dantza eskolak, eta 7 urtetik aurrerakoentzat pilotakoak. Izen-ematea, 09:00etatik 13:00etara, udaletxean.

Ibarra. Ibarra-Racing Bearzun moto lasterketa taldearen aurkezpen ekitaldia. 20:30ean, Karlatz garagardotegian.

Villabona. Otsagi-Belagoa mendi irteera antolatuta du Aizkardi elkarteak datorren astebururako, uztailearen 1 eta 2. Izen-ematea, elkartearen.

ERAKUSKETAK

Hernalde. Gregorio Lopezen margolanak, Ostatuan ikusgai.

Tolosa. *Aterpeak.* Miguel Angel Oriberen eskultura erakusketa. Uztailearen 1a arte ikusgai, Aranburu Jauregian.

Tolosa. Kultur tailerretako ikasleen lanen erakusketa. Uztailearen 1a arte bisita daiteke, Aranburu Jauregian.

Tolosa. Jesus Lopez Zulueta margolanak, Saikin tabernan.



Eskola zaharrari agur, eta berriari ongi etorri

BERROBI ▶ Berrobiko San Andres eskolakoek *Pausoka* aldizkaria kaleratu dute, urtero moduan. Baina ale honek badu berezitasunik: lehengo eta egungo eskolaren historia biltzen du. Izan ere, eskola zaharrari eskainitako alea da,

agur modukoa egin nahi izan diote hala. Herritarrek utzitako argazkiak, kontatutako pasadizoak eta eskolako bertako materiala erabiliz osatu dute aldizkaria, eta 200 bat banatu dituzte. Irailan, eskola berriari ekingo diote ikasturteari. HITZA

Tolosa. Yolanda Artolaren margolanak, Fronton kafetegian.
Tolosa. Iñaki Epelderen, Jose Luis Longaronen eta Carmen Mateoren margolanak, Errota tabernan ikusgai.
Zizurkil. Eskultura erakusketa, Olentzo jatetxean.

HITZALDIAK

Belauntza. *Bainu termalak: prebentziozko tratamenduak eta terapeutikoak.* 16:00etan, Kultur Etxean.
Orexa. *Bainu termalak: prebentziozko tratamenduak eta terapeutikoak.* Etzi, 16:00etan, udaletxeko garbanan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Iturrioz, Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
Leitza. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

IRRATIA

Txolarre irrataria (107.5, 101.2 FM)

GALTAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi.
Zenbakia. 238.a (2006ko ekainaren 21a).
Orrialdeak. 20.
Tirada. 5.000 ale.
Gai nagusia. Tolosako San Joan jaiak.
Beste gaiak. Euskarazko antzerkiaren egoera, Alkizan dagoen etxe domotikoa, etxebizitza erosterakoan kontuan hartzeko zenbait aholku, Amaroizko VIII. Antzerki Astea, Galtzaundiren ludoteka uztailetik aurrera, Alegia UEMAkide izango da, Yolanda Artola margolari tolosarrekin solasean, agenda...
Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldea.
▶ Nafarroa etorbidea, 6-behea.
▶ 943 65 50 04
▶ galtzaundi@galtzaundi.com
▶ www.galtzaundi.com

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepassoa, elkarrizketak, albisteak, agenda, lehiaketak, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri.*
21:00-22:00. *Zaharrak berri.*
22:00-23:00. *Street noise.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa